ERIJETATIK

OTZANDIYO

EGURALDIYA

Igaro dan aste azkenean, eduŕak bere margoa erakutsi deusku baŕiro. Lengo astean uste genduan uda baŕiya eldu zala baña damutu egin biar izan yako.

AUTESKUNDEAK

Eŕi guztiyetan doiaz lanak auŕeratuaz ganean daukaguzan auteskundeatzaz. Zer egiten dogu guk? Askok uste dogun baño gaŕantzi andiyagoa dauka ba oraingo auteskundeak, geure eŕiyetako gora berak euren eskuetan ipiñi biaŕ direz eta beste aldetik, danok gagoz guraríz "Dictadura" aldiyan egiñiko zapalkadak astiñduteke bada yakiñekoa da asko direna ta.

SOZIOLISTAK

Eŕi onetan dagozan "soziolistak" noren alde gingo ete dabe? Guztiok dakigu bada eŕi onetan bakaldaŕ (monarquico) edo abeŕtzaleak bakaŕik dagozala eta onek baŕiz biyonen areriyo direzana bere bai. Euretarikoen bat agertzen ezpada ba ziñegotzirako ez dakik nor autatuko daben. Nor izan leiken? Euruen artean dagoan "Ituŕi" edo beste enbat bere agertuko litzake. Ia ba mutilak kontuz "Ituŕi" onek igalien batzuk emon ez daizkuzan. Ezda gitxi direla ta lo egon bier. Saŕi askotan au yazoten da, zuriyak baltzari baño, baltzak zuriari Ariñago zikinduten dau. Oŕegatik ba kontuz.

"KIRIKIÑO„'REN GORALPENA

Atsekabe andiyagaz baña zeregiñ ariñeko bat egiñ biaŕa egertu agaitik eziñ yuan biaŕa eldu bat gaur Mañari eta Durango'n, "Kirikiño" zanaren izenian egingo direan jai andiyetara. Neu yuan ezaŕen, neure gogua bialtzen dot ta neure idazle lagunak artzen dabezan goguak, ontzat emoten dodaz. Asketsi ba.

ANDIKONA.

ZEANURI

GARIZUMA'KO IRUGAŔEN IGANDEA

Auŕekoetan lez eleiztaŕ asko dabil igandero aŕatsaldeko eleizkizunan Zeru ta Gaiztokiatzaz egin itzaldia gure txaunburu onbidetsuak.

MISIÑOAK

Bidean doguz. Iía onen 22, igandean egingo dabe saŕerea. Eŕi onetako seme argi Aita Goikoetxea da Egaña Aita Josulaunak (jesuitak) izango dira.

Egunotan urtengo dau Eleiz-Oŕia bere-beregi eurotzaz eginda. Zertzelada guztiak ekaŕiko dauzana, orduak mixiño kantak da abaŕ.

ABERTZALE ARAZOAK

Batzoki'ko beaŕak amaituta dagoz da orain garizuma ondoren zabalkundeak egiteko. Oŕetarako etoŕiko dira Bilbo'ko euzko gazteritik euzkera izlari eŕimeak. Baita lenagoko abestiak ikasten dabiz nekatotxoak txistulari da ezpatadantzari ta abar jai andia egiteko ustea dago.

Gazteriek beste biderik eztauko gure abeŕi au jaso goratu iñoŕ mindu barik. Albora nai erdira, nai gora nai bera begiratu alderdirik onena osoena. Eŕiak lo zoŕotik urten bear dabe, kirolzalekeri laŕegia gitxitu, edariagaz naurien ibili. Dana egiteko edo ikasteko dago euzkerea, edestia, abestiak. Gure irakasle Sabin andiaren ikuŕinpean Jaungoiko eta Legezaŕa lenengo ipiñirik.

"KIRIKIÑO" OMENEZ

Baita Mañari bere eŕian egingo dira elizkizun ta abar. Eztakigu bertaratu ko al izango bagara egun oŕetan, baña aldaben danak euzkel idazle da euzkotaŕak erdu bear dabe. Emendik Aŕatie'ko eŕietatik ondo dago yoateko aŕatsaldeko lauretan antzezkizun politak. Durango'n Bilbao'ko euzko gaztedikoak egingo dabe. Baita an izango dira Renteria'ko txistulariak be.

NASKALDIJA

Asterdian emen izan da eŕi onetako seme argi Antondoa'taŕ Pantzeska Getxo'ko txaunburu jauna.

ARTU DOGUZ

"Jaungoiko-Zale" da "Karmengo Argia" euzkera aldizkari edeŕak.

TXISTULARIAK

Artu dabez Gipuzkoa'ko Iztueta'n dantzak Euzko ikaskuntzak argitalduak. Baita ezpatadantzarien ingurtia da txistu eŕebistea.

BATZAŔA

Eginzan igandean Areatza'n Aŕatia'ko izpaŕingiatzaz da batzarkide guztiari ondo baño obeto eretxi, eutzien asmuari Aŕatia'ko Deya laster urtengo dabelakoan nago. Areatzatik itz egingo dabe izpaŕingi onetan, zuzendaritza an dago ta.

EGURALDIA

Martizenian lur-landuten edo zeozer ipiñi gurarik solo, da ortuetara, baña egurdi auŕean urten eban axe otzak baŕiro be eduŕa ekaŕi euskun da eguasten goxean, beraño eduŕe egin eban. Aurten udabaŕi onek auŕerakuntza andirik eztakazku. Igali edo frutentzak oba da atzera loreagaitik.

BASEŔITAŔ BAT.

MANARI

Gaur, Bustintza'taŕ Ebaista kistaŕ zintzo, jeltzale ta idazle ospetsua zanaren oroimen jaira erduko zarien euzkotaŕ guztijori ¡aguŕ! anaikoŕ samuŕ bat dagitsuet. Eta "Kirikiño„'ren gogoak zeruriik lagunduta. "Jaungoikua eta Lagi-zaŕa" eliburutzat dogun abertzaliok, geure abeŕijaren aldez zintzo ta sutsu jokatuaz, asabaen eŕi autetsijau beren ele edeŕ eta oltura deun guztijakaz lenbait-len geureganatu daigun.

ERIJOTZAK

Mendibutsu'ko Uriarte'taŕ Balendiñ gizona, igaro dan egubenian, beren etxeko gela baten il da aurkitu eben. Aspaldijan, Balendiñ gizajua bakaŕik bizi izanda; ta uste danez, bat bateko erijotzak eruan dau. Jaunak zeruan euki begi. Bere sendikuai atsekabian laguntzen dautsogu.

Igaro dan igandian Bilbo'n il zan Untzalu'taŕ Pilipe anderea' Pagoaga'ren alarguna ta emeko alabia. 77 urtegaz. Jaunak zeruan euki begi. Beren seme-alabari atsekabian laguntzen dautsogu.

JUAN ETOŃI

Lenguan egon ziran emen, gaurko jaya atonduten etoŕita, Garamendi'taŕ Kandida "Kardantxilo", Ertzila'taŕ Gergori "Gogoŕa", Azurmendi'taŕ Joseba ta Etxezaŕaga'taŕ Luki, danok abeŕtzale zintzuak.

MIXIÑUAK

Aste onetan belguntzak edo misiñuak daukoguz. Mixiolari, Murgoitio ta Egaña Aitak doguz; ta sekuleko berbaldi edeŕak egiten dauskubez. Eleizkizunok, goizeko sei ta erdijetan, aŕatsaldeko iruretan eta gabeko zazpiretan egiten dira, ta iru txanda oŕetan eŕi guztija eleeizaratuten da. Ta alako gauza edeŕ eta onuratsuak entzunda, poz pozik danok etxeratuten gara. Bijamonian baŕiro juateko asmu sutsuagaz.

Eguben goizian, zazpiretako mezan, umetxuen Jaunartzia egin zan. Gotzontxuok, soñu ta abesti edeŕen artian Mai-Deuneratu ziran. Egaña Aitak berbaldi samuŕ bat egiñ eutsoen. Gero, amaŕetan, gure neska-mutikuok ibildeun edo prosesiño polit bat egiñ eben. ¡Axe bai zala gauza polita! Ikuŕin dotoriak eskuetan zituezala "Gora Kristo-Eŕege" abestuten zintzo ta adoretsu ibili ziran.

Bariku goizian Miren-alabok geure batzaŕeko Jaunaŕtze ta eleizkizun edeŕa euki gendun. Eta guri be, mixiolari bijak berbaldi egokijak egin euskubezan. Belguntzok gaur, igandez, amaitzen diran ezkero, uŕengo idazkijan zerbait geijago esango dot.

"JADAŔKA„'RI

Neure osaba maitiaren gomutaz, igaro dan eguaztenian opaldu eustazun idazki txukuna pozik ikusi neban. Eta "andra-ikustia" deritxon izkirimiri polita atsegiñik askogaz irakuŕi be. ¿Zelan ez? Kirikiño zanagandik artuta, bere ikasle zintzuenetariauak gatz andiz idatzita ikustiaz Eta... idaztiño oŕek, diñozun lez, tamalgaŕizko jazokunt izan eban. Dozuz ijeki bakaŕak, idaztiñoak eundakaz edo aneika ugeritu begiz. Ain gauza politak jentiak atsegiñez irakuriko dauz ta.

MAÑARIKO.

Euzkal Orri onen irakurleak, ain kuntzaren aldez egiñiko agurtzat artuko dabe euzmaite daben izkerazko iragarkiak ipintea. Salerosleak ulertu beie ondo.

AZKOITI

MAÑARI'RA

Guazen aldegun danok, gure irakasle aundi maitia izan gendun Bustintza'taŕ Ebaista (G. B.) zanari eskeintzen zaion omen jaia ospatzera, ori eta geiago eginda ere etzaio ordaintzen, berak egin izan zituan biaŕ aundi euzkera jasotzeko eta onekin gure Abeŕi maite Euzkadi aldez, otoi Jaunari bere gogo aldez ta berak donokitik bere ikasle eta lagun gustieri iritzi dion bere erakutsi zintzo etan auŕera jaŕaitzeko.

Bertan biltzen zeraten Euzkel idazle eta abeŕtzale guztieri opa dizutet egun edeŕ zoriontsu bat igarotzia.

ERIOTZA

Ikurton deunak aŕtu ondoren Jaunak berengandu digu Laŕaŕ'taŕ Josebe neskatxa. Laguntzen diogu atsekabian beren ama anai aŕebari. Aparteko bat nere lagun Jon Joseba'ri, irakurlia otoi bat beren gogo aldez.

PELOTA

Datoŕen igandian Donostin izango dute zeiñ txapeldun izan eskuzko aldratan, gure lagun Batzokiko bazkide diran Iguaran'taŕ Joseba eta Aramendi'taŕ Joseba mutil gazte pizkoŕak beragatik poztu giñake irazbastia Euzko Gastediakin batera. Jo mo-

ANTZERKI JAIA

Batzokiko aldra bigikoa gogor arida ikasten antzezki edeŕ edeŕa dan "Garbiñe". Uste danez Pazkua egunian izango dala diote, garaiz iragaŕiko da ziguŕ beraz poztu abeŕtzale eta euzkel antzerki zaliak, beriala deguta geŕtu danok ikusteko.

EGI-ALDE.

SORALUZE'TIK

AUTESKUNDIAK

España'ko agintari nagusiak auteskundietzaz esan eta adierazi duana siñistutzekua bada, laister ditugu uri-auteskundiak. Datoŕen ilan 12 nos ki, guri agintzen digutenen esana siñistuta. Beraz, gaur baño bigar uŕerago, ta bigar baño etzi uŕerago "Eŕi -auteskundiak" berealaxe datoz: ilabete baŕu gutxi-gora-bera.

Oin uŕenguan izan zirala zortzi -amar urte dira iya guziz aztutzeko beste. Nola juten diran urteak! Eta ainbeste urte "Pake santuan" jun dira, askoren ustez. Bai, eta asko eta asko dira alaxe uste dutenak, eta aua bete-betean dasatenak: "Zortzi urte abetan euki degun pakea!!" Eta onela uste izan dutenak, onela oldoztu ta itz dagiten oyek tamalez josita daudela, dirudi, auteskundiak datozelako edo oraingo arteko "Pake Santu" ori austea datoŕelako. ¡Eŕukaŕiak onela oldozten duten gizonak, aulkeriz gaxoturik daudelako onelakoen adimenak!

¿Zortzi-amar urtean "Pake-Santua" euki degula? Nik ezdakit, nik ezin asmatu det ze "Pake Santu" euki degun urte dontsu oyetan.

Edo ¿"Pake Santua" ote da ezpata zoŕotzaren lokaŕiarekin eŕi baten gogoa lotuta eukitzia? ¿"Pake Santua" ote da Jaungoikuak gizonari eman dion askatasuna ta eskubidiak lotu erazita bizi izatea? ¿"Pake Santua" ote da Jaungoikuak Abeŕi bat eta izkuntza bat eman gizonari eta bera maitatu eziñik lotuta euki erazitzia? ¿"Pake Santua" ote da gizon batzuek besteren gauzekin nai-dutena egiñaz eta besteak beren gauzekin agindu ezin izatea? ¿"Pake Santua" ote da batzuentzan bazter guziak zabal-zabalik beren gogaketa guziak asetzeko ta besteantzat danak itxirik eukitzia? Eta azkeni, ¿"Pake Santuan" bizi izatea ote da Abeŕi bat gauŕ zortzi-amaŕ urte *Beŕeun miloi pesetan* zoŕa zeukana gauŕ *Mila miloi*, en *zoŕetan* jartzea? ¿"Pake Santua" al da au guzia?

Eŕi-auteskundiak badatoz; betoz ba ordu onian, juputasuneko (esclivitudeko) "Pakea" baño askatasunezko *buŕuka* nayago degu-ta.

¡Auŕera, bada, abeŕtzaliak! Guziya Jel-gatik eta Jel-aldez.

ZELETA.

Erosi "ASTE GURENA"

Zabala-Arana abearen idazti edeŕa.

¡AGUR MAÑARI!

Bai, Mañari. ¡Aguŕ zeuri Bizkai baztertxu polit oŕtan zauden euzkaldun uts-utsa zaran, uritxu begikuoŕi! ¡Mañari! ¡Ze gozoro sartuten yakun geure belaŕijetan baŕura, geure bijotzetako maĩasun biguña josita daroan ixen ori!

Ta gauŕ Mañari, geure maĩasun aŕen sustaŕa dan, zure seme on, argi ta aundija ixan zanaren ixen iraunkoŕa, goraldu ta era batera bere azuŕak gordetan dauzan ilobi apalaren ganeti donokira otoi xamuŕ bero -bero gogotsuak zuzendutera gogatsuz.

Ta bide batez zeuri Mañariri geure eskaŕ-ona erakustera be bai gatoz, zure gandik ain aĩa-on, jakintsu, aundi, izlari jatoŕ, idazle argi, euzkaltzale gartsu ta irakasle obea artu gendulako.

Ta gauŕ Mañari, zure seme kutun oŕek landu euzan euzkel-idazle, euzkel-ikasle ta euzkeltzale guztijok, gixon bat lez oŕ ixango gosuz, geure lotzea eskintzera, zuri uri txiker gogoko oŕi; ta gogoz, buruz, oroimenez, ta indaŕez aundija zoiñez aundija ta biotzez aundijagua ixan zan Bustintza taŕ Ebaista "Kirikiño" (G. B.) berdiñik bakoan ixen kutuna betiko yosita istera. Yosiko doguzan gomuta-idazkun oŕeik "Kirikiño" maĩeak eŕaiteraño sartuta eroyan euzkeltzaletasunari jayokion lez geure izkuntza edeŕ, mamitsu, eztitsu, argi, garbi, edozer gai erabilteko egokia, zaŕ ta zoragaŕijan yosita geldituko dira, atzetik datozan gixaldijak gomutau dagijen Euzkerea'ri muñak eta mamiñak astertu eutsozan euzko eredua "antxe jayo zala" ta euzkerea biztu, edertu, zabaldu, maĩtetu ta besarkatuaz, etxean, txaidean, ikastolan, txadonan ta sokondo guztijetan lotsarik barik erabili ondoren "etxe onetan" Jaungoikuari bere gogo edeŕa emon eutsola.

¡Gero arte, Mañari, Bizkai bastartxu polit oŕtan zauden euzkaldun uts -utsa zaran uritxu begikuori!

ABELETXE.

El 20 de marzo publicará EUZKADI la

PAGINA DE PESCA

a cargo de un redactor especializado en la materia

Admitimos suscripciones y anuncios para la Página de Pesca.

EGUNEKUA

EUZKADI'TIK

EUZKEL IXENAK

Ernani eŕi txukunean Dame Joseba euzkel ixenakaz ugutzau ixan dabe Geŕa'taŕ Alexander eta Ugalde'taŕ Eŕapele'ren seme jayopaŕija. Zorijonak guraso zintzo onei, olako jaŕai bidia emon dabelako.

Galdakano'n Amantzi Joseba euzkel -ixen politakaz ugutzau dabe Meabe'taŕ Ixidor eta Bilbao'taŕ Pele'ren semetxu. Moŕosko ori Mandaluniz'taŕ Joseba eta Trabudua'taŕ Polixene euzkeltzale ta abeŕtzale sutsubak, besoetan artu eben.

Zorionak guraso zintzoai.

MAÑARI'RÁ ELDU DIRANAI, AGUŃA

Aguŕ samuŕkiro egiten dautsoe EUZKADI izpaŕingijak gaur "Kirikiño" ospetsubaren gomutea beŕiztuten Mañari'ra eldu diran guztijai. Etxeko jaya dau izpaŕingi onek, "Kirikiño" ren biotzeko muina zalako EUZKADI. Urte askotan ekaitz ziar bazan bere, Euzkel-Atala arteztu eban gixon on arek, amaikatxu idazle jator eta irakurle abeŕijaren onerako egiñik. Aguŕ onek emongo al dautse guztijai, zuzen lan egiteko adoria, beti Jel alde, "Kirikiño" egin eban legetxe.

"KIRIKIÑO„'REN OMENEZ

Ona emen "Argia„'k zer diñuan gaurko jai onetzaz:

"¿Nork zan Kirikiño? Euskal-eŕiak izan duen ituŕirik garbi ta jaioena. Ituŕi artatik eran zuten idazleak badakite nola erabili beren burua. Buru argi ta biotz obea. Ituŕi bizi-bizia zan Kirikiño. Euskal-eŕi guzia asetzeko ainbat ur garbi eman zuan bere buru bizkoŕak. Bere euskera ugari ta eŕeza idazle beŕi askoentzat janari xee ta goxoa zan.

Eta bere erakuskizunak? Zuzen, zintzo ta ona. Euskal-eŕi zale sutsua, egi-egiz gure eŕiaren ona bila zebilena. Gezur-euskaltzaleak miñik aundiena ematen zioten.

Kirikiño, Durango'n jaio zan eta il zanetik gogo bizia zeukaten guziak, bañan bere eŕitaŕak batez ere, bere aldez zerbait egiteko. Datoŕen igandarako, Bilbo'ko "Euzko-Gastedia" bizigaŕi dutela, jai-aldi edeŕ bat eratu dute. Beraz, datoŕen igandean, Durango'n, bilduko dira Kirikiño'ren maitaleak: bizkaitar anaiak eta Gipuzkoa'tik iŕistadan eratuko diran Kirikiño zale asko.

Meza ta il-otoizketa lenbizi: oroitaŕi bat jaŕiko da ondoren bera bizi zan etxean; bazkaria gero, itzaldi susperkoŕak tartean eta azkenik Oldargi ren erakusketa aipagaŕiak.

Kirikiño onak onetsiko al ditu zeru goitik an alkartuko diran eusko anai guziak.

"Argia„'k gogoz lagundu nai die jai eratzaleari.

AUTESKUNDE-SARATAK

Egun oneitan gauza asko irakuŕi ixan doguz Donostia'ko izpaŕingijetan, bateko Jeltzaliak onegaz duazela, besteko aregaz. Azkenean baŕiketak guztijak ixan dirala ikusi dogu. Betiko legez. Donosti'ko buru batzaŕak argitaldu dau uar bat jeltzale guztijai dei egiñik auteskundietarako gertaurik egon daitezala, soilik abeŕtzaleiak juango diralako. Abeŕtzaliak eztabe beste iñogaz juan gura, naiko diralako eurak. Oŕela agertuko da alderdi bakoitzak zelako indaŕa daukon eta ez bestiakaz bat eginik alde ixan, muŕintasuna estaldu nairik.

MAX H. SAVELLE

Egunotan geure artian dabil Bernard College, Columbia'ko irakaslia dana. Euzkadi'ko abeŕtzaletasuna ikas tera etoŕi da, gero lan bat egiteko. Oso pozik daguala gure artian, atoz iñuzkun, eta emeko abeŕtzaletasunak aŕitatu itzi dau. Jaun onek, euzkoen abeŕija maite dau, ta goraiben andijak dagiz. America aldera duanean, izpaŕingi geyenetan onetzaz idatziko dabela diño, guztijak ezagutu dagijentzat eŕi eder au. Bere egotaldija ixango alyako alik atseginkoŕena.

ESPANIA'TIK

JAKA'KO AUZIPETUEN ALDE

Epaitegiko lendakari dan Gomez Morato yaunak uŕutidazki asko ta asko yaso dauz, Jaka'ko auzipetuen alde parka eske.

GALAN'EN IDAZKI BATZUK

Auzi-agerkaietan Galan zanak bere eskuz idatziriko idazki batzuk irakuŕiko dira. Aierbe'ko etxe baten aurkitu dabez. Berenguer'en Gobernuak Batzaŕ nagosietan irakurteko asmua eban. Beroietan komunista yokerako Lateŕia aitatzen da. Baita erlijiño gaiaz bere, ta Diru-etxe ta arazo abartzaz.

Idazki oŕeitatik zenbaitzuk atzeŕitik erderatuak izan dira.

"EL SOL" EGUNKARIA

"El Sol" egunkaria yaubez esku-aldatzera ei doa. Aledo'ko markesak eta Barbaten'go kondeak erosi ei dabez garazki edo aziñorik geienak, eta beste garazkidunekaz alkaŕ artu ei dabe euren asmurako.

ORDU BAŃIAREN AURKA

Salerosle ta ekintza-batzaen ugazaba Alkartasunak gogoŕ idatzi deutso Gobernuari ordu baŕiaren aurka. Ain zuzen bere, salerosleai ta ekintzan diarduenai bakaŕai kalte egiten deutse ordu oŕek, eta berak aurka dagoz.

SABADELL'GO OPOŃALDIA

Sabadell'go burdilarien opoŕaldia bere baten dago. Uria baketan ei dago.

OGETA BEDERATZIGAŔEN LEGE-TXATALA

Uŕengo auteskundeetan auteskunde -legea oso osorik egokiko da. Beraz ogeta bederatzigaŕen txatala bere bere indaŕean geratzen da.

BERENGUER'EK GUDA ARAZOA ITZI?

Surmur au sortu da, ta aren ordez Cavalcanti'k artuko dauala arazo ori.

Romanones'ek ostera, baŕi ori bipilki guzurtatu dau.

ALCALA ZAMORA TA ABAR

Erkal-agiria izenpetu ebenentzat zigoŕa erabagi dau gudarien Gobernuak. Alcala Zamora'ri amabost urte egotzi deutsoz espetxean egoteko, ta Maura'taŕ Mikel'eri, Largo Caballero ri, Fernando de los Rios'eri, Albornoz taŕ Albar'eri, ta Casares'taŕ Yagoba'ri ostera zortzina urte.

Enparauak, Prieto ta abaŕ, biuŕitzat artu dira, ta alan ebatziak izango dira.

Cursillo sobre la Encíclica de la educación

CONFERENCIA DE DON MARCELINO OREJA

Continuando el curso organizado por la Biblioteca de Buenas Lecturas, desarrolló ayer el señor Oreja Elosegi en el salón de esta Biblioteca la ponencia siguiente: "El Estado español en materia de enseñanza. La ley Moyano y sus aplicaciones. El artículo 12 de la Constitución del 76. ¿Monopolio o libertad?"

"Un examen completo del tema exigiría—dice el conferenciante—ocuparnos de la enseñanza primaria, de la secundaria y de la universitaria, estudiando la legislación española correspondiente a la ley de las doctrinas de Pío XI, expuestas en la Encíclica sobre la Educación.

Por limitación de tiempo, se ocupa única y exclusivamente de la enseñanza secundaria y pone bien de relieve, antes de nada, las palabras del Papa en cuanto a los derechos del Estado en materia de enseñanza, cuando dice que le han sido comunicados "por la autoridad que le compete, para promover el bien común temporal, que es precisamente su fin propio", y éste consiste "en la paz y seguridad de que las familias y cada uno de los individuos pueden gozar en el ejercicio de sus derechos y, a la vez, en el mayor bienestar espiritual y material que sea posible en la vida presente, mediante la unión y la coordinación de la actividad de todos".

"Doble es, pues—añade el Pontífice—, la función de la autoridad civil que reside en el Estado: proteger y promover; y no absorber a la familia y al individuo o suplantarlos", protección que alcanza a la prole "cuando venga a faltar física o moralmente la obra de los padres, por defecto, incapacidad o indignidad". Y más adelante añade: "Además, el Estado puede exigir y, por tanto, procurar que todos los ciudadanos tengan el conocimiento necesario de sus deberes civiles y nacionales y cierto grado de cultura intelectual, moral y física, que el bien común, atendidas las condiciones de nuestros tiempos, verdaderamente exija", pero "es injusto e ilícito todo monopolio educativo o escolar que fuese física o moralmente a las familias a acudir a las escuelas del Estado contra los deberes de la conciencia cristiana o aun contra sus legítimas preferencias."

Expuesta y comentada esta doctrina, estudia el conferenciante la ley de Moyano, que negaba la libertad para la concesión de grados académicos, la negaba para la elección de textos y sólo la concedía para la elección del profesorado, con restricciones no esenciales. Todo ello suponía la estatificación de la enseñanza, vulnerando con ella no sólo las leyes pedagógicas, sino la propia ley natural.

La Constitución del 76 supone, en cambio, la confirmación plena de la libertad de enseñanza; según comentario de un insigne pedagogo, la organización que propone nuestra Constitución es verdaderamente magistral, por el "exquisito respeto que a todos los derechos guarda; el derecho de los padres a formar espiritualmente sus hijos; el de todo ciudadano a ejercer libremente sus actividades, dentro del orden; escoger profesión y aprenderla donde y cómo pueda y más le convenga, sin intromisiones del Estado en la vida privada de los individuos, actuando e interviniendo éste sólo en la colación de grados". "Sería excelente obra de Gobierno—añade—quemar todo lo legislado después del 76 e imponer la Constitución a la letra—hoy que tan en boga está tal medida—, rompiendo las ligaduras que no permitan avanzar a la educación nacional."

Examina el conferenciante esta legislación, deteniéndose principalmente en los reales decretos sobre enseñanza de Groizard, Gamazo, marqués de Pidal, García Alix, Romanones y Estatuto de Autonomía Universitaria de Silió, terminando con un breve comentario al plan de Callejo y al propuesto por el último ministro de Instrucción Pública.

Deduce la necesidad de realizar una labor persistente que haga avivar la conciencia católica en materia de enseñanza, hoy totalmente adormecida, consecuencia de lo cual, mientras nuestros partidos católicos discuten personalismos que ahondan las diferencias, haciendo estéril su labor, quedan abandonados temas tan sustanciales para el progreso nacional como este de la libertad de enseñanza, que, además, podría y debería ser nexo de unión y de inteligencia para cuantos, en lo fundamental, defienden una misma doctrina.

Terminada la conferencia, se puso a discusión el tema, interviniendo muy atentamente los señores Sautu, Isusi, don Esteban Bilbao y el propio conferenciante.

Se acordó que la próxima reunión se celebrará pasada la Semana Santa.

CONCIERTOS DE LA SINFONI

Coronado de lauros, conquista allende el Atlántico se presenta el rector favorito del público de Bilb Wladimiro Golschmann a reanud su labor con la Orquesta Sinfóni bilbaina. Al aparecer en público se ovaciona efusivamente, como para licitarle por sus triunfos y para a mirar su labor artística con la O questa local.

La obertura "Freischutz", de W ber, quizá por muy oída, no nos llan especialmente la atención. El públ co, sin embargo, se entrega a él, ca tivado por algo que no alcanzamos definir.

El ballet de Scarlatti-Tomassi "Las mujeres del buen humor", ej cutado por primera vez, se compon de un allegro gracioso, que interes vivamente; de un andante, que sobre coge por su severa inspiración, estil música orgánica religiosa, la part que señalaríamos como cumbre de programa, y de un presto ágil, que no resulta un tanto atropellado en l ejecución.

"La sorpresa", de Haydn, tocad también por primera vez, es una sinfonía digna de las mejores de su ins pirado autor. Tiene un adagio cantabile muy clásico y gracioso, que recuerda a veces a Beethoven; un noble andante, salpicado de algunas sorpresas o salidas bruscas que el autor dicen que las intercaló para que no se durmiera el príncipe Esterhazy; un menuetto elegante, sutil, en que el director luce sus dotes interpretativas.

"La muerte y transfiguración", de Strauss, recientemente oída en Bilbao bajo otra batuta, nos resulta algo menos pesada. A través de la agitación romántica, flota el amable tema sentimental, muy bien llevado. Al final de esta pieza, el director y la Orquesta resultan estruendosamente ovacionados, recibiendo en pie la interminable salva de aplausos.

Finalmente, la lujosa descripción de la "Cabalgata de las Walkyrias" de Wagner, provoca una tempestad de aplausos, que, mitigada, vuelve a descargar en el local, haciendo necesaria la presencia del director, que ha vuelto a su público incondicional.

El lleno del Salón de la Filarmónica fué absoluto.

Bienvenido sea el señor Golschmann, para bien de la Orquesta y satisfacción del inteligente público.

CASERIOS Y PROPIEDADES

SE VENDEN DE OCASION dos caserios, un establecimiento de comidas con varios pabellones, una casa de nueve habitaciones y planta baja, terrenos y una granja agrícola, amplia, con todas las comodidades, con importantes pinares y árboles frutales y prados, a ocho kilómetros de Bilbao. Trato directo: C. Larreátegui número 47, primero. Teléfono 14.72

CEMENTO PORTLAND "ZIURRENA, S. A."

(EL MAS SEGURO)

Propiedad de la Sda. marca Cangrejo

FUEROS, 2. TELEFONO, 12.258

Para una buena ¡digestión!

SI el estómago se encuentra cansado, podrá volver a su estado normal tomando media cucharadita de las de café de Magnesia Bisurada, después de las comidas. Los disturbios digestivos tienen casi siempre por origen un exceso de acidez y la Magnesia Bisurada además de neutralizarla instantáneamente suaviza el epitelio irritado del estómago y asegura una digestión normal y sin dolor.

MAGNESIA BISURADA

El remedio más eficaz para combatir la DISPEPSIA, ACIDEZ, ARDORES, GASTRITIS, FLATULENCIA é INDIGESTION.

En polvo y en tabletas en todas las Farmacias.

Juan de Bilbao y Goyoaga

DEUSTO (BILBAO).—Teléfono 12.46

Fábrica de lona impermeable, toldos para ferrocarriles, trajes de agua, velamen, encerados, banderas, defensas salvavidas, etc., etc., para buques. Especialidad en velamen para regatas.